

Balio proposamena:

Gure tatuaje dendak denborari garrantzi handia ematen dio. Gure ustez, garrantzitsua da bezeroaren denbora eta horregatik ahalegin guztiak egingo ditugu denbora aurreztearren, bai tatuajea egiteko denboran, baita bezeroaren beharrei jaramon egitean ere.

Bezeroaren sakelean ere pentsatzen dugu. Ulergarria da pentsatzea gaur egun tatuajeak egitea nahiko garestia dela. Hala ere, iruditzen zaigu, aztertu ditugun beste denda batzuekin alderatuta, guk proposatzen ditugun prezioak eta eskaintzen dugun kalitatea oso lehiakorrak direla.

Ondorioz, pentsatzen dugu, bezeroei erakusten diogun zerbitzua oberena dela eta inguruan ez dutela antzekorik aurkituko.